

2



2

3

Jaialdia
DKLUBA

Jaialdia DKLUBA

Dkluba programa musika-emanaldien zirkuitua da, auzoetako eta hiriko musika-eskaintza dinamizatzea, hasten ari diren tokiko taldeak ezagutzera ematea eta, gainera, izen handiko artistak etor daitezen bultzatzea helburu duena. Arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren bitartez, horren komertzialak ez diren proposamen alternatiboak programatzen dira eta balioa ematen zaio musikari, kolektibo, elkarte, klub eta sustatzaileen tokiko sareari. Azken batean, tokiko musika-talentuaren berezko erreferentea da **Dkluba**.

Argi-ilunak izan zituen 2023ak. Aurreikuspen meteorologikoek baldintzatu zuten **Glad is the day** jaialdia, aldatu egin behar izan zen parkeko programazioa, eta Dabadaba eta Le Bukowski

aretoetara eraman. Bestalde, aretoen egoerak hobera egin zuen, eta pandemia aurreko edizioetako zifretara hurbildu ziren.

Dkluba zirkuituak –kultur etxeetako gainerako programek bezala (Musikagela, Larratxo Kultur Etxeko metal kontzertuak edo Lugaritz Kultur Etxeko askotariko musika-emanaldiak)–, bete egin zituen kontzertu-aretoak, izen handiekin; aldi berean, baina, tokiko artisten aldeko apustua egiten jarraitu zuen.

2023. urtean zehar, dagoeneko haien izena duten tokiko artisten emanaldiak programatu zituen Lugaritz Kultur Etxeak, hala nola **Don Inorrez, Sara Azurza, Esti Markez, Sonakay** eta **Iker Lauroba** izan ziren Lugaritzen, eta ez zuten hutsik egin.



Intxaurren Kultur Etxeari dagokionez -horixe da **Dkluba** zirkuituaren eszenatoki nagusia-, **XIII. Musikagela Weekend** jaialdiarekin hasi zen urtea, rock doinu amerikarrenekin, **La Perra Blanco**, **Ramada Inn** eta **Rumbling Lips** taldeen eskutik.

Udaberrian, berriz, erritmo latino eta tropikalez gozatzeko aukera egon zen, **Goxua`n salsa** eta **Quitapenas colectiva** taldeekin. Apirilean eta amaitzean, ostera, **Su ta Gar**, **Corizonas + Los Premodernos** eta **Ibil Bedi** taldeak izan genituen.

Uda-giroa iritsi zenean, ekainean, **IV. Musikagela Fest** jaialdia, tokiko taldeen aire zabaleko jaialdi ibiltaria, Tomas Alba Plazara (Sagues) itzuli zen, eta Musikaren Eguneko jaiarekin bat egin zuen (ekainaren 21ean). Musikagelako zortzi talde aritu ziren (**Convöi3zur**, **Monday Lup**, **Ane Leux**, **Cosmicar**, **Muare**, **Tritones**, **Tony Montana & Pavlyuchenko**), baita talde gonbidatua ere, **Travellin´ Brothers** ezagunak.



Ane Leux © Iñaki Rubio



Muare © Iñaki Rubio



Las ligas menores © Iñaki Rubio

Abuztuan itzuli zen **Glad is the day** jaialdia zazpigarren edizioarekin eta, beti bezala, Cristina-enea parkean egiteko asmoa zegoen arren, euriaren eraginez, programazioa egokitu egin behar izan zen, eta Dabadaba eta Le Bukowski aretoetara eraman behar izan ziren emanaldi gehienak.

Irailean berriro iritsi zen musika Intxaurrendora, **El Columpio Asesino** talde nafarrarekin; agurreko birako kontzertuetako bat izan zen, eta haien pop-rock estiloko abestirik enblematikoenak eskaini zituzten. Erantzun paregabea eman zuen jendeak; bete egin zen aretoa. Martxotik zeuden agortuta sarrera guztiak.

Ginmusica eta **Donostia Kulturaren** eskutik, publiko gazteenarekin ekin zitzaion urriko egitarauari. Doinurik urbanoenez gozatu ahal izan zuten musikazale gazteenek, **Donostiakluba Festivalaren** hemezortzigarren edizioan. Artista gazteak izan genituen, hala nola **Orslok**, **Haizeatxo eta Tximu**, **Khaled** eta **Tinez**. Hilabete amaieran, reggaerik onena ere itzuli zen Intxaurrendora, **Revolutionary Brothersek** antolatutako 2023ko **Revolution JamRock** jaialdiarekin; gaueko jaialdi bikaina ekarri zuten, **The Titanians**, **Revolutionary Brothers**, **Ines Pardo**, **OBf feat, Charlie P & Sr Wilson** taldeekin.



Ines DJ © Iñaki Rubio

Kutixik jaialdiarekin iritsi zitzaigun azaroa; tokiko musika-taldez osatutako **Balio dute** kolektiboak antolatzen duen ekimena da Kutixik. Haien lanari balioa emateko eta euskarazko zirkuitu alternatiboa promozionatzeko osatu zuten kolektibo hori. **Haira**, **Ginger**, **Nakar**, **Pelax** eta **Toc** taldeek osatu zuten kartela.

2023ari amaiera ezin hobea emateko, **Trinchera pop** disko berria aurkeztu zigun **Iván Ferreirok**, eta Intxaurrendoko aretoa jendez gainezka zegoela agurtu zuen urtea.



El Columpio Asesino